



EGEF ETA EGIF 2014-2020 GIPUZKOAN

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak onartu eta berretsi egin du Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (EGEF) eta Europako Gizarte Funtsaren (EGIF) finantziarioa edukiko duten Aldundiaren proiektuen zerrenda, 2014-2020 aldiari dagozkion Euskadiko Programa Operatiboan barruan.

2013 urtearen amaieran jarri ziren indarrean Europar Batasunaren Kohesio Politikaren inbertsioetarako 2014-2020 programazio-aldi berria arautzen duten araudiak eta legegintzako egintzak.

Onartutako lege-paketeak arau komunak ezarri zituen **Europako Egitura eta Inbertsio Funtsarako**, hala, Europako eskualdeen hazkundeari eta enpleguari gehiago eragin ahal izateko. Zehatz esanda, Europako eskualdeentzat funtsetan egingo den inbertsioa 325.000 milioi eurotan ezarri zuten 2014-2020 aldirako.

Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen artean daude, besteak beste, **Eskualde Garapeneko Europako Funtsa (EGEF) eta Europako Gizarte Funtsa (EGIF)**.

Funts horien helburua Kohesio Politikaren helburuak betetzen laguntzen duten jardueretan inbertsioak egiteko finantzaketan parte hartzea da. Europako eskualdeetan Kohesio Politikari lotuta egin beharreko inbertsioen plangintza egiteko, Europako Batzordeak egitura-funts bakoitzerako Programa Operatiboak nola gauzatu negoziatu du Estatuarekin ekintza zehatzen lehentasunak eta inbertsioen helburuak xehatuta.

Europako Parlamentuak funtsak banatzeari lotuta onartutako arauak eta irizpideak betez eta Estatuak esleipen-irizpideak aplikatu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoak 396,2 milioi euro jasoko ditu 2014-2020 aldirako.

Testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoari esleitutako zenbatekoaren % 65 (257,5 milioi) euskal administrazio publikoek sustatutako ekintzen finantzaketara bideratzea erabaki da. Gainerako % 35a ere Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatuko bada ere, Estatuaren Administrazio Orokorra kudeatuko du.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko esku hartzeen finantzaketara bideratuko diren 2014-2020 aldirako 257,5 milioietatik **186,4 milioi euro (% 72,4) EGEFetik etorriko dira eta 71 milioi euro (% 27,6), berriz, EGIFetik.**



Aldundiak 36,9 milioi euro inbertituko ditu EGEF Euskal Autonomia Erkidegoa 2014-2020 Programa Operatiboak % 50ean finantzatuko dituen proiektuetan

EGEFi dagokionez, Eusko Jaurlaritzak **EGEF Euskal Autonomia Erkidegoa 2014-2020 Programa Operatiboa** prestatu du hiru Foru Aldundiekin batera. Programa horrek, EGEF funtsetatik etorritako 186,4 milioi euroko aurrekontua du guztira.

Administrazioei banan-banan begiratuta, Eusko Jaurlaritzak funtsen % 70 kudeatuko ditu (130,6 milioi) eta Foru Aldundiek gainerako % 30a (55, 8 milioi). Gipuzkoari begiratuta, EGEF funtsak 18,4 milioi eurokoak izango dira 2014-2020 aldirako. Horri begira, jardueretan 36,9 milioi euroko inbertsioak programatu behar dira.

Gipuzkoan EGEF funtsen programazioa egiteko prozesuan, Zerga eta Finantza Politiken Zuzendaritzarekin batera (Gipuzkoan EGEFen ardura duen departamendua), beste hainbat foru Departamenduk ere hartu du parte eta Programa Operatiboaren harira esku hartzeak egiteko proposamenak egin dituzte.

Prozesu horren emaitza gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiak honako jarduera-ildo hauetan hartuko du parte EGEF Euskal Autonomia Erkidegoa 2014-2020 Programa Operatiboan:

Gaikako Helburua	Jarduera-ildoak
2. IKTen erabilera eta kalitatea hobetzea	• Zerbitzuak eta aplikazioak Gipuzkoako e-Administraziorako
	• Plataforma teknologiko berriak Administrazio digitalerako
	• Gipuzkoa Datos sarea
3. ETE-en lehiakortasuna hobetzea.	• Enpresak eta Oinarri Teknologikoko Enpresa Berriak sortzeko bidean lagun egitea
	• Gipuzkoako enpresa txikiei eta ertainei sendotzen eta berrikuntzak egiten laguntzeko programa
4. Sektore guztietan karbono-isuri baxuko ekonomia izateko bidean urratsak ematea	• N-1 eta GI-20 errepideetako (Donostiako saihebidetako) argiztapen-instalazioak egokitzea
	• Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Arloko Plana garatzea
	• Gipuzkoan energia berriztagarriak sustatzeko laguntzak emateko programa
	• Eraikin publikoetako energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduerak
	• Hobekuntza teknologikoak Lurraldebus garraio-txartelaren sistema elkarreragingarri bihurtzeko
• Lurraldebusen autobusak berritzea energia-eraginkortasun hobea izan dezaten	
6. Ingurumena kontserbatzea eta babestea eta baliabideen erabilera eraginkortasuna bultzatzea	• Ibaien ibilguak iragazkortzeko jarduerak



Aldundiak PYME Ekimenari eginiko ekarpenari esker, ia 31 milioi euroekin maileguak emateko aukera izango da

PYME (ETE) ekimena enpresa txiki eta ertainen finantzaketa hobetzeko helburua duen Europako finantzaketa-tresna berri bat da. Arriskuen estaldura hobetzen du Europako eskualde bakoitzari bideratutako EGEF funtsak erabiliz.

Euskal Autonomia Erkidegorako ekimen honen bidez eskuratuko den dirua, orotara, 12 milioi euro izango da eta Europako Inbertsio Bankuak (EIB) aplikatutako eragin biderkatzailea aplikatuta, 94 milioi euro inguru emango dira kreditutan eta Euskal Autonomia Erkidegoko 810 enpresa txiki eta ertainetara iristea dago aurreikusita.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 989.279 euro jarri ditu ekimen honetarako EGEF Funtsetatik etorritako zenbatekotik. Horri Eusko Jaurlaritzak eta Administrazio Orokorrak Gipuzkoarentzat bideratutako ekarpena gehituz gero, guztira, 3,9 milioi eurokoa izango da bolumena. Zenbateko horri EIBk Euskal Autonomia Erkidegoarentzat duen eragin biderkatzailea aplikatuta, **30,96 milioi euro eskuratu ahal izango dituzte kreditutan Lurraldeko enpresa txiki eta ertainek.**

EGIFek Gipuzkoan autoenplegua sustatzeko 5,8 milioi euroko inbertsio baten % 50 finantzatuko du

EGIF Euskal Autonomia Erkidegoa 2014-2020 Programa Operatiboak 54 milioi euroko aurrekontua du guztira EGIF funtsetan, Euskal Autonomia Erkidegoak Gazteen Enplegua Estatuaren ekimenari eginiko ekarpena kenduta.

Programa Operatiboaren helburua pertsonen lan-merkatuan hobeto parte hartzea da eta horretarako, autoenplegua sustatu nahi da, enpleguaren kalitatea hobetu eta desgaitasunak dituztenak, langabezian daudenak eta gizartetik kanporatuak edo pobrezia-arriskuan daudenak lan munduan sartzeko erraztasunak jarri.

Batzordeak Programa onartu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 2015eko urtarrilean erabaki zuen sustatu egingo zuela entitateek Programa Operatiboan lehiaketa bidez parte hartzea. Gipuzkoako Foru Aldundiak deialdi horri erantzun zion eta parte hartu ahal izatea eskatu zuen **Autoenplegua Sustatzen** ekimena aurkeztuta.



2016ko otsaila

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak onartu egin zuen Aldundiaren eskaera eta Gizarte Funttsaren finantzaketan parte hartzeko aukera eman zion Aldundiak aurkeztutako proposamenari, **EGIF funtsen 2.925.000 euro bideratuta (alegia, 5.850.000 euroko inbertsioa izango da).**

Autoenplegua Sustatzen ekimenaren helburua Gipuzkoan, autoenpleguaren bidez, enpresa-proiektuak garatzeko eta enpresak sortzeko prozesuetan, pertsonen laguntza pertsonalizatua eskaintzea da.

Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusiak aurkeztutako ekimen honek bi jarduera-ildo ditu:

- **TXEKIN:** Enpresa-proiektuei laguntza enpresak sortzeko prozesuetan.
- **EMEKIN:** Laguntza eta sustapena emakumeek sustatutako enpresak sortzeko prozesuetan

Ekimen hau enpresa berriak sortzeari lotuta beste ekimen batzuk babesten dituen *Gipuzkoa Ekintzailea* estrategia indartzera dator: azpiegitura fisikoak eta azpiegitura osagarriak, Oinarri Teknologikoko Enpresa Berriak sustatzea, ekintzaitzan laguntzeko finantza-tresnak. EGEFen laguntza ere badu.